

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA, SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA (EJIE), 2016.

Joan den urriaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, SAren (EJIE) ekonomia-finantzaren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari dagokiona.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du.

Txostenak ondorioztatu du EJIEk zuzentasunez **bete duela** 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz bi zerbitzu prozedura erraztu bidez kontratatu diren, prozedura irekia baliatu beharrean, Kontrataziorako Barne Aginpideetan aurreikusia dagoen modura.

Bestetik, HKEEk ezin egiaztatu izan ditu 15 lanpostu betetzeko baliatutako hautaketa prozesuak (9 barne sustapen bidez eta 6 aldi baterako langile txanda kontratu bidez), izan ere kanpoko enpresa baten bitartez egin du eta honek ez du dagokion dokumentazioa gordetzen.